

ETXEAN EGIN  
DAITEKEEN  
EBALUAZIO  
ERRAZA DAKAR

**TESTA**

EDUCAIDEAren laguntzarekin

IDATZ- IRAKURKETA

# IRAKURKETA- ABIADURA HOBETU DAITEKE?



ESKUTIK



begoñazpi  
ikastola



Kaixo, familiei:


Artikulu honetan aztertuko dugu nola eragiten duten begien mugimenduek irakurketa-prozesuan eta nola baldintzatu dezaketen gure seme-alaben irakurketa-abiadura. Testuan zehar, etxean modu errazean begi-motrikotasunari buruzko alderdi batzuk nola ebaluatu ikasiko dugu, eta irakurle azkarren eta motelen arteko desberdintasunak hobeto ulertuko ditugu.

Educaidea taldeari eskerrak eman nahi dizkiogu eduki hau sortzeagatik; ziur gaude baliabide egokia izango dela gure haur eta nerabeen irakurketa-espereintzia hobetzeko.

Eskolako zereginetarako, ikasleek begi-sistema eraginkor eta koordinatua izatea beharrezkoa da. Begien mugikortasunak garrantzi handia du, zuzenean lotuta baitago irakurketarekin eta idaztea edo marraztea bezalako motrizitate finarekin.

# BEGIEN MUGIMENDUEK DUTEN ARDURA

A.D.I. programan (Adimenaren Garapenerako Laguntza) egindako ebaluazioetan ikusi zen irakurketan zailtasunak zituzten haurren %99k begi-motrikotasun arazoak zituztela. Horrek ondorioztatzen garamatza begien mugimenduek direla lehen erantzuleak irudia begira iritsi eta irakurketa garaian erretina zentralera erortzeaz. Irakurtzen hasten garenean, gaitasun hau kontuan hartu behar dugu, izan ere, maila horretako disfuntzio batek bestelako ikus-prozesuetan ere zailtasunak ekarriko dizkigu.



# IRAKURLE AZKARRAK ETA MOTELÉN ARTEKO ALDEA.

## ZERK ERAGITEN DU?

Irakurketak memoria bisual berehalakoa erabiltzea dakar, letrak eta hitzak unean bertan prozesatzeko; eta memoria bisual luzarokoa, berriz, irakurritakoa gogoratzeko. Letrak eta hitzak informazio zati gisa hautematen dira, eta kortexean prozesatzen dira. Prozesu bisual horri esker, ikus-zatiak eta hizkuntza-zatiak uztartzen dira, eta horrek irakurketa arina eta ulergarria errazten du. Hala ere, pertzepzio bisuala distortsionatuz gero, irakurketako akatsak eta ulermen okerrak gerta daitezke. Irakurketan zehar begien mugimenduak honela kontrolatzen dira:

1. Erretina periferikoa erabiltzen duten bilaketa-sistemak, testuaren zehar begirada gidatzen dutenak eta lerro-ihesak errazten dituztenak;
2. Letrak eta hitzen arteko espazioak ere funtsezkoak dira, testua ikusmenaz antolatzen laguntzen dutelako;
3. Finkazioen iraupena letren xehetasun zehatzak bereganatzeko aukera ematen du.

# IRAKURLE AZKARREN ETA MOTEL EN ARTEKO DESBERDINTASUNAK

## IRAKURLE AZKARRAK

- Begiek testuaren zehar modu erregularrean mugitzen dira.
- Finkazio bakoitzean sinbolo gehiago hautematen dituzte.
- Mugimendu motelagoak egiten dira, eta horrek begien nekea murrizten du.
- Irakurketa bitartean ez dira buruko mugimenduak gertatzen.

## IRAKURLE MOTELAK

- Begiek modu irregularrean mugitzen dira, finkazio-ihesekin.
- Finkazio bakoitzean sinbolo gutxiago hautematen dituzte.
- Maiz gertatzen diren atzerapenek eragiten diote aurrerapen erritmoari.
- Buruko mugimenduekin laguntzen dira.
- Batzuetan, irakurketa hatzarekin jarraitzen dute.






# DIAGNOSTIKO ERRAZA

Etxean begi-motrikotasuna ebaluatzeko, honako proba hau egin dezakegu gure seme-alabarekin:

- **Arkatz-mugimendua (1. irudia):** Eman arkatz bat eta egin ezazu seme-alabak begiekin jarraitu arkatzaren mugimendua norabide desberdinetan (horizontal, bertikal eta biraketak). Begiratu finkazio-ihesak, begi-migrazioak, malkoak edo buruko mugimenduak ikusten diren.
- **Ahozko irakurketa:** Eska iezaiozu seme-alabari ahotan irakurtzeko eta begiratu burua mugitu egiten duen, lerroak saltatzen dituen, hatza erabiltzen duen irakurketa jarraitzeko edo aurretik aipatutako beste sintoma batzuk erakusten dituen.

Kontuan hartu: Arazo hauek ikusten baditugu, komeni da optometriska bati kontsultatzea ebaluazio zehatzago bat egiteko.



1. irudia. Arkatz-mugimenduko ebaluazioa

## BEGI-MUGIMENDU DESEGOKIAREN ADIERAZLEAK

- Irakurtzean burua mugitu.
- Lerroak saltatu irakurtzean.
- Hatzarekin irakurketa jarraitu.
- Irakurketa ulermen txarra.
- Irakurtzea ez zaie gustatzen.
- Irakurketa oso motel egiten dute, gelditu eta atzera eginez.



# SISTEMA BISUAL EZ ERAGINKOR BATEK ERAGIN DITZAKEEN ONDORIOAK

Pertsona batek gaitasun bisual eraginkorrak ez baditu, honako sintomak agertuko dira:



| Sintoma                    | Ezaugarriak   |
|----------------------------|---|
| Buruko mina                | Bereziki begien inguruan edo bekainaren aldean, eta batzuetan buruko atzealdean.  |
| Biko ikusmena              | Momentu batez bi objektu ikusten dira, objektu bakarra dagoenean.   |
| Errendimendu murriztua     | Irakurtzen duen bitartean desorientazioa, motelkeria eta irakurketa ulertzeko zailtasunak agertzen dira, eta lerroak errepikatu behar izatea gogoratzen ez duelako. |
| Nekea eta deserosotasuna   | Eskola edo laneko zereginak amaitzean tentsioa, estresa eta gorputz-mina sentitzen ditu.  |
| Menpekotasuna / Suppresioa | Begi bateko informazioa blokeatu daiteke edo garunak alde batera utzi, biko ikusmena saihesteko; ez badute arreta jartzen, egoera pixkanaka okertuko da.            |

1. tabla. Sintoma - Ezaugarriak

# BEGIEN TREBAKUNTZA

Optometriak ikusmen-errendimendua hobetzeko erabiltzen dituen metodoak trebatze bisualaren barruan sailkatzen dira. Ideia horren zati bat da organismoa osotasun integratu gisa kontsideratzea, eta baita trebetasun bisual jakin batzuk hobetu daitezkeela metodo ez-konbentzionalen bidez, adibidez betaurrekoak edo kontaktu-lenteak erabilia.

Ikusmena trebetasun-multzo bat da, gizakiok ez duguna gene bidez heredatzen, baizik eta ikasi behar duguna. Ikusmena ikasten den prozesu bat bada, argi dago trebatua edo berriro heda daitekeela.

Haurraren garapenean ikasten diren eta trebatzen diren trebetasun bisualen artean honako hauek daude:

Trebetasun  
bisualak

**Jarraitze-mugimendua**

**Sakadako mugimenduak**

**Sakonera-perzepzioa**

**Periferia-ikusmena**

**Binokularitatea**

**MArreta mantentzea**

**Hurbileko ikusmen-zehaztasuna**

**Urruneko ikusmen-zehaztasuna**

**Irudikapena / Ikuskapena**

2. irudia. Trebetasun bisualak



Espero dugu artikulu honek gure seme-alaben irakurketa nola eragiten duten begien mugimenduek eta begi-motrikotasunak modu argiagoan ulertzen lagundu izana. Etorkizuneko aleetan, irakurketa prozesuan parte hartzen duten trebetasun bisual bakoitza hobetzeko trebakuntza desberdinak partekatuko ditugu, batez ere etxean landu daitezkeen horietan zentratuz. Hurrengora arte!

Egilea eta itzultzailea: Zaira Vicente - Educaidea-ko zuzendaria

# ESKERRIK ASKO!

**EDUCAIDEA**ren laguntzarekin

